



ZORROTZ MORROTZ

71. ZERIA 2021eko IRAILA



LUR JOTA

ROCK TALDEA

ROCKAREN KIMUAK ERAKUSKETA



Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

Aprende euskera,
con la mejor
compañía

aek
euskara praktikoa



Zorrotza AEK euskaltegia 2021-2022 IKASTURTEA

MATRIKULA ZABALIK • EMAN IZENA

Zalbidea 7, behea | **94 441 49 20** | **zorrotza@aec.eus**

DIRULAGUNTZAK / BECAS

EUSKO JAURLARITZA:

maila egiaztatuz gero.
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BILBOKO UDALA

Maila eta asistentzia egiaztatuz behar da.
Acreditar nivel y asistencia



Aurrez aurreko eskolak
Clases presenciales



Autoikaskuntza
Autoaprendizaje



Normalizazio-planak
Planes de normalización



Mintzopratika



Online



Itzulpenak-Zuzenketak
Traducciones-Correcciones



Barnetegiak



izul aldizkaria

• HADE homologatutako euskaltegiak
Euskaltegi homologatutakoak por lekuak
• Astelehenetik ostirataraino
Cursos de preparación de exámenes oficiales
100% diruz lagundua **HADE** **Eusko Jaurlaritzak**

www.aek.eus
873 203 130 - 946 461 000



Zuen ezinbesteko laguntzarekin, auzoa hobetzen ari da

Azkenean, uztailaren 14an, Udalak eta Garraio Ministerioak hitzarmena sinatu zuten geltokia eta auzoan ditugun Feveko trenbide-pasaguneak lurperatzeko. Zorrotzak lortutako urrats garrantzitsua da, eta bete arte, oso adi egongo gara prozesua nola garatzen den. Zorionak!!

Beste aldetik, jakinarazi nahi dizuegu, pandemia dela-eta, Auzo Elkartea astelehenetan biltzen dela Auzo Etxean 19:00etan. Irailean Batzar Nagusia egiteko asmoa dugu, gai askoren berri eman behar delako. Auzo Elkartearen helburua auzoa hobetzen jarraitzea da, baina azpimarratu nahi dugu seriotasunez eta zuen ezinbesteko laguntzarekin auzoa osorik hobetzea lortzen ari dela.

Bukatzeko, egoera dela eta, aurten ere ez dira jaiak ospatuko, baina Jai Batzordeak zenbait jarduera antolatu ditu egun horietarako, eta, jakina: prebentzio- eta segurtasun-neurri guztiak hartuko dira.

Ikusten duzueenez, nahiz eta egoera zaila den, auzoko gizarte-sareak gogor jarraitzen du lanean. Beraz, parte hartzen animatzen zaituztegu!

Animo, eta beti aurrera.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarritz



Zorrotzako kultur aldezakaria
71. zenbakia. 2021eko iraila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behe

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

t [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratxe Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Inigo Ramírez de la Piscina

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Jon Puente



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Bilboko Udalak eta Madrilgo gobernuk FEVEko trenbideak lurperatzeko obrak bermatzeko hitzarmena sinatu dute

Aitor Marín

Hainbat istriputan 21 pertsona hil dituzten FEVEren Zorrotzako bi trenbide-pasaguneak kentzeko proiektuak martxan jartzeko baldintza guztiak betetzen ditu dagoeneko. Bilboko alkateak eta Estatuako Gobernuak garraio ministro berriak, Raquel Sanchezek, uztailaren 14an sinatu zuten Zorrotzatik igarotzen den FEVE trenbidea lurperatzeko finantziakzioa bermatzeko hitzarmena. Lur azpiko ibilbide berriak 2 kilometroko luzera izango du eta Zazpi Landa ingurutik igaroko da. Lur azpiko geltoki berri bat ere eraikiko da, Zorrotzako behealdetik arrapalen bidez eta Zazpi Landatik igogailu baten bidez sarrerak izango dituena. Lurperatzeari esker geratuko den lur gaineko espazioa ekipamendu berriei urbanizatuko da.

Lanen guztizko kostua 55,2 milioi eurokoa izango da, eta ADIFek eta Udalak erdibana ordainduko dute. Ministerioak trenbide-inbertsioen %53,5 ordainduko du, eta Udalak, gainerakoaz gain, sarbide guztiak eta espazio liberatuen urbanizazioa. Hitzarmenak 4 urteko iraupena aurreikusten du lanak bukatzeko, eta, beraz, 2025. urtearen amaierarako amaituta egon beharko lukete obrek. Hala ere, akordioan aurreikusten da iraunaldia lu-

zatzeko aukera, baldin eta eperen bat luizatzen bada.

Juan Mari Aburto alkateak baieztatu zuen akordioak "itzulerarik gabeko bidea ireki duela", eta lehen aldiz bi aldeak lanari ekitera behartzen dituen hitzarmen bat dagoela, eta nabarmendu du lurperatzea beharrezkoa dela metroaren etorkizuneko 4. linea martxan jarri ahal izateko: "Linea horrek izango duen maiztasunarekin ezingo bailirateke bost edo zazpi minuturik behin hesiak jaisten aritu", esan zuen Aburtok.

Auzo Elkarteak eta herri mugimendua oro har pozik agertu ziren akordiarekin, eta hitzarmenak erakundeen arteko akordio bat ezartzearen garrantzia azpimarratu zuen Elkarteak. Baina hala ere, obrak hasi arte, presioa egiten jarraituko duela baieztatu zuen, agintariak prozesua ahalik eta azkarren egin dezaten: "Hainbeste izan dira azken urteetan bete ez diren promesak, ezen makinak ikusi arte ez garen ziur egongo horiek egingo ote diren". Horregatik, auzo mugimenduak adierazi zuen oso adi egongo dela ezarritako epeak betetzearekin, "trenbide-pasaguneak kendu gabe pasatzen den egun bakoitzean istripu gehiago izateko arriskua baitago".

Zorrotzalai larai kultur programak beteko du ohiko jaien hutsunea

Zorrotz Morrotz

Bigarren urtez jarraian, pandemiak ez digu jaietz gozatzeko utziko. Hala ere, eta zorionez, osasun-egoera hobea denez, Jai Batzordeak, Zorrotzalai Larai kultur programaren izenarekin, zenbait kultura-ekitaldi antolatu ditu, Zorrotzako jaiak ospatu genituen aldian. Ekitaldi guztiek hauek baldintza soziosanitario guztiak zorrotz beteko dituzte.

Jai Batzordeak azaldu duenez, Zorrotzalai Larai ez ditu betiko jaiak ordezkatuko, baina giro atsegina eta denontzako jarduerak ez



dira faltako. Musika, kirol erakustaldiak, dantzak eta kirol txapelketak, besteak beste, izango ditugu gurean irailaren 24tik urriaren 3ra arte. Jarduera hauei buruzko informazio gehiago aurkituko duzu 16. orrialdeko agendan.

Zorrotza bere jairik gabe Zorrotza ez dela gogoratu du Jai Batzordeak. Horregatik, berriro izateko, sentitzeko eta gure lagun eta auzokide maiteez gozatzeko ordua dela aldarrikatu dute, eta giroaz gozatzeko deia egiten dute, baina beti ere segurtasunez jokatuta.

Zebrabide berri bat izango da Fray Juan kalean

Zorrotz Morrotz

Auzo Elkartearen aspaldiko erreklamazio bati erantzunez, Udalak obrak hasi ditu Fray Juan kaleko espaloiak egokitzeko eta N-634 errepidean zebrabide berri bat margotzeko, Omega Galeriararen irteeraren parean. Semaforoz araututako zebrabide berri hau laster erabili ahal izango da.



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidia estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

STAZ
OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tño, 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

VÍA gráfica

viagraficzorrotza@gmail.com

disenya



Landako eremua berreskuratuko da aire zabaleko kirol-eskaintzarekin

Zorrotz Morrotz

Bilboko Udalak Zorrotzako Muturrean erabiltzen ez diren guneak berreskuratuko proiektua aurkeztu zuen pasa den ekainearen bukaeran. Planteatutako jarduketa-eremua Zirgariak kaiaren, Artsenalbidearen eta Marino Archer kalearen artean dago, eta bidegorria gune horretatik Erriberako parketik igarotzen den tarteraino lotzea ere aurreikusten du.

Done Mikel plazako kirol-pistaren eremua birgaitzea aurreikusten da; bertan, kantxa bi jarriko dira eta Bilboko lehen pumptrack pista eraikiko da. Jolas eta kirol-instalazio zirkuitu itxi eta asfaltatua da pumptrack pista hau, hainbat oztopo, bihurgune, jauzi eta sakangunez osatua, bizikletekin, patineteekin eta abarrek in egin daitekeena. Zorrotzakoa Estatuko osatuenetako bat izango da udal agintarien hitzetan, “konplexutasunari eta lehiatzeari da-

gokienez”. Trantsitu kalekaren ekialdean dagoen lursailean izango da, 1.265 metro koadro inguru izango ditu eta hiru gunetan banatuko da, zailtasun-maila desberdinekin.

Proiektatutako lanak Zorrotzako Muturreko estrategiaren barruan sartzen dira, eta besteak beste, “ingurune horren erakargarritasuna sustatzea aire zabaleko kirola lagun eta aparkalekurik eza arintzea ahalbidetuko dutela” azaldu zuten udal agintariek. Inguruari segurtasun handiagoa ematea ere helburu du proiektuak, Artsenalbidea eta Erriberako parkea lotzen dituen lurpeko pasabidea kenduz eta hura behar bezala argitatzat.

Obrek milioi eta erdi euro inguruko aurrekontua dute, eta lizitazioaren esleipena formalizatu ondoren, zazpi hilabeteko epean gauzatuko dira.

Ezkerraldetik BI-10 errepidetik datozen ibilgailuentzat sarbide berri bat proiektatu dute.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko lehen hiruhilekoan lizitatuko ditu Gurutzetako Ospitalerako sarbide berria eraikitzeko obrak, Ezkerraldetik datozen ibilgailuentzat. 3,6 milioi euro inguruko inbertsioa egingo da, eta jarduketa honen bidez, ospitalerako eta Zorrotzarako sarbide zuzena sortu nahi da ez-

kerraldetik BI-10etik datozen ibilgailuentzat. Gaur egun, Errontegi zubitik datozen ibilgailuak ezin dira N-634 errepidetarako sarbidea ematen duen “begizta”ra sartu Zorrotzarako noranzkoan, eta, ondorioz, BECeKo biribilgunitetik edo Gurutzetako La Paz biribilgunitetik sartu behar dira gidariak.

Zorrotzala ilarai

Zorrotzako Euskal Txokoak babestutako ekintzak



Txotxongilo Tailerra *XILIPURDI ETA GOLOKA*

irailak 26, igandea
12:00etan Azoka parkean

COVID 19aren kontrako
segurtasun neurriak beteko dira



ASTEAZKENA 29, 19:30 E.A.N. AZOKA PLAZA

EUSKAL MINTZA*

*Zer da Euskal Mintza?

Auzoan eta auzoaz euskaraz patxadaz
aritzeko tartetxoa.

Mahaietan jarrita eta 6koteka, auzoari dago-
kion gai baten gainean arituko gara 15
minutuz (anekdotak, iritziak, kritikak, propo-
samenak...).

Ondoren, mahaietan birnahastu eta bigarren
gaia aterako dugu.

Amaitzeko, berriro birnahastu eta azken gai-
az arituko gara.

Helburuak:

- Auzoan euskaraz egitea.
- Euskal kontaktuak egitea.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babeslea:



“Oso giro ona duen langile hiria da Getafe. Bizitzeko, Madrileko hiririk lasaiena dela esango nuke”

JOSU CARVAJAL

Bizitokia: Getafe (Madril)

Noiztik: 2020ko uztailetik.

Adina: 25 urte.

Lanbidea: Goi-tentsioko argiketaria.

Aurreko enpresan gero eta lan gutxiago zegoelako, eta, batez ere, han bizi zelako uda igarotzen zuten herrian ezagututako bikotekidea, duela urtebete iritsi zen Josu Madrilerara proiektu eta aukera berrien bila. Etorkizunaz asko kezkatu gabe, “gogotsu” ekin dio etapa berri honi



Testua: Aitor Marín

Nolatan eta zergatik heldu zinen Madrilerara?

Pandemiarekin dugun egoera dela eta, lanean nengoen enpresan geroz eta urriagoa zen lana. Madrilen, hiri handi guztietan bezala, lan aukera anitzak daude, lan eta proiektu berriak bilatzeko, eta hona etortzea erabaki nuen. Nire neskalguna Madrilen bizitzeak eta lanean egoteak ere nabarmen lagundu zuten ni hona erakartzen.

Zertan ari zara lanean?

Elektrizitate banaketan. Nire laneko egoitza Leganesen dago, baina ez naiz bertan gertatzen normalean. Hortik abiatzen gara hainbat tokitara, Madrileko hegoalde osoan eta Tole-doko iparraldean dihardugu eta.

Zergatik hautatu zenuen Getafe bizitzeko eta ez Madrilgo beste udalerrri edo auzorik?

Beno, ez zen erabaki erraza izan. Nire an-dregaiak partekatzen zuen pisan hilabe-

te bat eman ostean, eta ehunka etxebizitza ikusi ondoren, azkenean Getaferra iritsi ginen pisu bila eta ingurua gustatu zitzaigun. Nire lanpostutik gertu dago, jendeak elkar errespetatzen duen eta oso giro ona duen langile hiria da; Madrileko Erkidegoko hiririk lasaiena dela esango nuke. Alde handia dago Madrileko erdialdearekin, baina ez batean edo bestean bizi daitekeen jende motagatik, baizik eta erdialdeak duen mugimendu handiarekin alderatuta, hemen askoz lasaiago gaudelako.

Beraz erdialdera gutxitan mugitzen zara, ezta? Getafen bertan moldatu ahal zara aisialdi eta beharretarako?

Bai, egia esan, nire lan-ordutegitik kanpo, hiri erdialderako bisitak nahiko urriak dira. Getafen era guztietako zerbitzuak ditugu, eta hemen zerbait falta bazaigu, erraz topatu daiteke inguruko hiri edo auzoetan erdialdera jo gabe.

Eta bertako bizimodua eta gurean ezagutu zenuena ezberdinak al dira?

Aldea ez da hain handia. Azken finean, auzoetan eta hegoaldeko hirietan bertako langileak bizi dira, eta jendea oso adeitsua da. Langile klaseko jendea da oro har, eta elkarren arteko harreman onak izaten dira. Bestalde, neska-mutilek guk auzoan dugunaren antzeko bizimodua dute, beraien lokalak dituzte geratzeko eta elkarrekin egoteko, igandeetan herriko futbol taldea ikustera joaten dira...

Eta hemen gurean zenuen guztitik, zeren falta sumatzen duzu gehien?

Familia, kuadrilla, San Mames, ... besteak beste.

Zer da bertan gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gutxien gustatzen zaidana da hemen dena urrun dagoela. Eta gustukoena berriz, ez dakit... Egia esan, hiri hain handietan, hainbeste gauza egonda, aukera pila bat izan dezakezu. Eta etorkizunean, gustatuko litzaidake bizilekutik gertu Athleticen etxetik kanpoko partida bat ikustea, lagunekin edo aitarekin, ni bezala Athleticzale sutsua baita.

Ba Getafen bizi izanda, Athletic ikusteko aukera duzu herritik atera gabe. Eta Madril-en bertan lau aurkari ditu aurreko Athleticetik lehen mailan, eta goi-mailakoak... Bat aukeratu behar baduzu, zein estadiotara joango zinateke lehenik?

Ba zalantzarik gabe, Vallecasera, Rayoren aurka. Bertan ikusi nuen hain zuzen ere nire



lehen futbol partida Bilbotik kanpo 2012an, 2-3 irabazita, eta aitarekin gainera!

Askotan bueltatzen al zara Zorrotzara?

Bai, hilean behin, gutxi gorabehera.

Madrilen geratuko zara luzaroan ala hona bueltatzeko asmoa duzu?

Uste dut orainean pentsatu behar dela. Askotan egiten didaten galdera da, baina ez daukat erantzunik... Oraintxe bertan hemen gaude, pozik eta gogotsu. Baina batek daki bihar auzora itzuli edo beste leku batera joan beharko dugun... Bizitzak buelta asko ematen ditu.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

AUTO ESCOLA
KAIKU

Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro esrara 10

AUPA ATHLETIC

Rockaren kimuak: 90eko hamarkada



KONTRA



KON EL
PEGA AL
REVES



ORA
PRO
NOBIS



GARRASI



FABE
DE FUKA



TXIRI
TXORI



CONFLICT
NOISE



ERAITE



NAHIAN



Hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadak batzen dituen erakusketaren arrakastak proiektu berriaren sorkuntza bideratu du. Kronologiak urte batzuk atzera garamatza Zorrotzan bizi izandako mugimendu musikala gogoratzeko asmoz. Horren emaitza uda hasieran Auzokan estreinatutako “90eko hamarkadako rocka” erakusketa berria.

Testua: Ibai Barrios

Azkenengo hilabeteetan egindako lan gorraren emaitza da erakusketa berri hau. Lehenengoak izandako arrakastaren ondorioz, Asier Aldasoro argazkilaria eta diseinatzailerak eta Auzokako koordinatzaile den Sergio Chamorrok osatutako lan taldeak historia honen bigarren zatia abian jarri zuten. Hasiera batean 90 eta 2000ko hamarkadak batzea izan zuten helburu. Baina auzoko taldeek egindako ekarpena ugaria zela ikusita, momentuz 90eko hamarkadan sortutako taldeei buruzkoa egitea erabaki zuten.

Beraz, honakoan talde hauek ekarri dituzte gogora: Ora Pro Nobis (OPR), Eraite, Garrasi, Kon el Pega al Revés (KPR), Txiri Txori, Fabe de Fuka, Nahian, Kontra eta Conflict Noise. Azkenengo hauek gainera oraindik egurrean jarraitzen dute eta 2019an “Agur eta ohore” azkenengo lana argitaratu zuten. Talde hauen guztien parte hartzea azpimarratu behar da proiektuari bizia emateko orduan.

Zorrotzan egondako aurreko belaunaldiak oso garrantzitsuak izan ziren talde hauen sorkuntzan. Urte haietan bizi izandako tes-tuinguru soziopolitikoak bide eman zuten musikaren bidez era guztietako mezuak helarazteko. Musika-tresnen eta teknikaren aurrerakuntzak zein abestiak grabatzeko formatu fisikoek (kasetea eta CDa) esangura handia



Erakusketari hasiera eman zion Trapala, Bajos Fondos eta Lur Jota taldeen kontzertu batek Zorrotzako Rock Astearen baitan.

Argazkia: Asier Aldasoro

izan zuten garai hartan. Kasetea gainera taldeek euren lehenengo grabaketak egitea erraz ahalbidetzen zuen formatua genuen, bere garaian oso erabilia.

Gurean aipamen berezia eskaini behar diogu frontoi azpiko lokalari, funtsezkoa suertatu baitzen taldeak aurrera ateratzeko. Nostalgikoez ez dute erraz ahaztuko lokal mitiko honen giro hezea eta berezko usaina. Baina batez ere guztion elkarlanari esker sortutako komunitatea. Instrumentu eta materialaren partekatzea ezinbestekoa izan zen.

Musika mota desberdinak landu ziren hamar-kada hartan, baina doinu gogorak nagusitu zirela esan dezakegu. Atzerriko taldeen influentzia nabarmena izan zen auzoko taldeen artean baina ezin ahaztu Euskal Herriko eszena oparoaren ekarpena dudarik gabe. Gaztetxe eta lokal autogestionatuen laguntza ere aipatu behar da, zirkuituari bizirik eusteko beharrezkoa.

Aurrekoan erabilitako “elkarlana” eta “komunitatea” hitzak proiektu hau aurrera ateratzeko klabeak izan dira. Makina martxan jarri, materiala bildu, etab... guzti horren adierazgarri dira. Beraz, oraindik ez baduzue egin, Auzokara hurbildu eta udaberrian zehar egindako lanaren fruituak urte batzuk atzera bi-daiatzeko aukera emango dizue.

LUR JOTA: Rock taldea

“Lur Jota jaio eta ia 20 urtera lortu dugu taldea egonkortzea eta gure lehen diskoa kaleratzea”



Irailean zehar, “20 urte berandu” aurkeztuko du Lur Jota musika guztiz autogestionaturiko lanaren aurrerapen bat zabaldu dute sare sozialen bidez eta interes handia piztu da auzoan. Izan ere, 2002an jaiotako bandaren estreinakoa dugu eta taldekideak aski ezagunak dira gure artean. Beraien ibilbide eta asmoei buruz solastatzeko bildu ditugu Erlantz (bateria), Ibai (baxua), Jabi eta Kristian (gitarra-ahotsak), Auzoka zentroko entsegu-gelan.

izeneko diskoa talde zorrotzarrak, ostean. Dagoeneko

“20 urte berandu” dator zuen lehen diskoa. Zergatik hainbeste denbora?

Hainbat arrazoi daude atzean. Batetik, Lur Jotako kideak aldatuz joan dira: hasieran Imanol, Gari eta Iker ibili baziren ere, gerora Erlantz eta Ibai batu ziren. Bestetik, norberaren lana edo ikasketak batzuetan elkartzeko oztopo izan dira. Gero, musika-lokala eraberritzen emandako urteetan (frontoia estali bitartean) geldirik egon ginen. Eta, martxan hasi eta gutxira pandemiak eten egin gintuen berriro. Zorionez, azkenean lortu dugu taldea egonkortzea eta errutina bati heltzea, eta diskoa grabatzeko abagunea ikusi dugu. Beraz, Lur Jota proiektu gisa 2002an jaio eta ia 20 urtera kaleratuko da gure lehen diskoa.

Prozesu guztia zuek zeuek kudeatu duzue, nola moldatu zarete?

Guk hartu ditugu diskoaren gaineko erabakiak, non grabatu, nola zabaldu eta horrelakoak. Eta gure poltsikotik jarri dugu dirua guk geuk egin ezin genezakeena ordaintzeko: grabaketa eta masterizazioa, diseinu grafikoa eta bideo gintza. Saiatu gara ahal genuen guztia auzoan egiten, esaterako, diseinu grafikoa Aitor Marin (*amc Diseinua*) eta bideoak Mikel Larena (*Larena Filmzz*) auzokideen esku utzi ditugu eta goraiatzekoa da haiek egindako lana. Gero, auzo mailan diskoaren aurrealmenta bat egin dugu, bonoak salduz; baina helburua diskoa formatu berezi batean (diskoa+oparitxoa) eskaintzea izan da gure lagun eta auzokideentzat, gero ohiko kopiak ere aterako dira. Oso harrera ona izan du aurrealmentak, espero genuen senide eta lagun ia gehienek erosi dute. Eskertzekoa da Jotabe, Herriko eta Madness tabernengandik izan dugun laguntza bonoak saltzeko.

Noiz aurkeztuko duzue diskoa? Eta aurrealmentan parte hartu ez dutenek, nola eskuratu dezakete?

Oraindik zehazteke dagoen arren, irailean jendaurreko aurkezpento bat egingo dugu eta bertan aurrealdutako diskoak banatuko ditugu. Gainerako kopiak banatzeko ez dugu momentuz ezer zehaztuta baina kontzertuetan eta bestelako leku fisikoetan saltzea pentsatu dugu. Baina garrantzitsuagoa iruditzen zaigu aipatzea gure lana plataforma digitaletan



“ Diskoaren aurrealmenta bat egin dugu auzoan, gure lagun eta auzokideentzat formatu berezi batean eskaintzeko. Oso harrera ona izan du ”





(Spotify, Youtube, Amazon Music, Apple Music) eskuragarri dagoela irailaren 18tik.

Udaberrian ibili zineten diskoa grabatzen. Zer nabarmenduko zenukete esperimentzia horri buruz?

Hasierako urduritasuna, Xanpe (Pi L.T.) musikariaren estudioa grabatzera gindoazelako. Hura eskarmentu handiko gizona da, bai musikari bai ekoizle lanetan. Baina berehala oso giro ona sortu zen, oso tipo hurbila zen, etengabe hauspotzen gintuen eta talde lan izugarria egin genuen. Hamabost egunetarako plangintza genuen eta azkenean hogeira luzatu zen. Lan gogorra egin dugu eta pila bat ikasi dugu.

“Doinu galduren bat” kantan Governors taldeko J Sang abeslariaren kolaborazioa izan duzue, nola suertatu zen hori?

Kanta hori lokaleko grabaketetan behin eta berri entzutean, halako batean Kristianek bota: “kanta honi ondo emango lioke Governors-eko abeslariaren ahotsak”. Hasieran txantxan hartu genion arren, gero berarekin kontaktuan jartzera ausartu ginen. Handik gutxira, oso jator erantzun zigun, maketa bidaltzeko eta bere ahotsa grabaturik bidaliko zigula. Esan



eta izan. Benetan, ohore bat izan da miresten dugun abeslari baten kolaborazioa gure lehenengo diskoan izatea. Izugarri geratu da!

Orain dela gutxi aurreratu diguzuen “20 urte eta

gero” kantuan, rock musikaren aldeko halako aldarri bat egin duzue. Zer adierazi nahi izan duzue?

Abesti hori gure diskaren bizkarrezurra da nolabait, abesti guztien oinarria. Gure ustez, hogei urte hauetan gure gizarteak ez du hainbat kontutan aurrera egin, statu quo batean bizi gara, krisialdi batetik bestera. Horrez gain, rock musikaren gainbehera somatzen dugu eta hori ere salatu eta gure alea jarri nahi izan dugu. Bestetik, kantak badu zerbait autobiografiatik ere. Baina entzun eta gero bakoitzak bere interpretazioa egin dezala!

Kantu horren bideoklipa zabaldu eta aste-betera mila ikustaldi baino gehiago lortu zenituzten Youtuben. Zenbateko jarraipena izaten ari zarete sare sozialetan?

Pentsatzen genuena baino askoz handiagoa. Bideoklipa zabaldu eta hurrengo egunera jendeak bolo-bolo zabaldu zuen, benetan eskertzekoa da lagun eta senideen laguntza. Sare sozialez haratago, zenbait hedabidetan ere oihartzuna izan du bideoklipak: Gaztezu-

lo, Insonoro, Naiz irratia, Hamaika Telebista...

Lur Jota hasieratik ezagutu dugunok ez ditugu zuen abesti zaharrak ahaztu: “Okupatu geroa”, “Ulertezina”, “Gau eroak”... Abesti zaharren bat berreskuratu duzue zuen diskorako?

Bai horixe, esaterako “Gau eroak” hartu eta moldatu egin dugu gure diskorako. Kanta zahar horiek ezagunak egin ziren behin zabaldu genuen maketa bati esker, baina badira beste kanta zahar eta ez hain zahar batzuk oraindik zabaldu ez ditugunak. Ez dugu kanta zaharrak kontzertuetan erabiltzea baztertzeko baina sormen aldetik bide berri baten hasieran gaude eta asmoa kanta berriak sortzea da.

Ekainean, Zorrotzako Rock Astearen barruan Lur Jotaren aro berriko lehen kontzertua eskaini zenuten. Nola bizi izan zenuten estreinaldi hori?

Urduri baina ilusioz beterik. Larrialdi egoeraren osteko lehen kontzertua izan zen, auzoan, denbora luze baten ondoren. Jaioberririak bezala sentitu ginen. Egia da apur bat hotza izan zela segurtasun neurriak zirela eta: denak eserita, maskara jarrita... Baina oso hunkigarria izan zen. Gainera Ibai gure baxujolearen estreinaldia zen!

Zeintzuk dira epe laburrera dituzuen kontzertuak?

Momentuz Zorrotzalai Larain, urriaren 1ean, daukagu kontzertu bakarra. Eta hortik aurrera, datorrena datorrela! Irrikitan gaude kontzertuen zurrunbilora bueltatzeko!



LABURREAN

“Diskoa grabatzea eskola magistrala izan da guretzat”

Zuentzat, zer dauka rock musikak beste generoen aldean?

Energia, izaera iraultzailea... Gehien maite dugun estiloa da.

Zer ikasketa atera dituzue etorkizuneko grabazioei begira?

Abestiak hobeto lantzea estudioara eraman aurretik. Guretzat eskola magistrala izan da.

“20 urte eta gero” kantaren bideokliplean eta diskoko azalean, erlojuak 9:20an geldirik agertzen dira, zergatik?

Sinpleki: 9 kanta plazaratu ditugu, 20 urte eta gero. Kantari zehar erlojuak geldirik agertzen dira, geldiune historiko horren metafora gisa. Amaieran, haurrek instrumentuak hartzean berriro abiarazten dute denbora.

cafe*txinbo*

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

LASTER

*Elektrizitatea
elektronika*

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

*El
TO
de
Fray Juan*

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbol, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Zorrotzalai larai

irailak 24 ostirala

- 18:30** Gymkhana kooperatiboa
19:00 Txupina eta "Auzokide" aurkezpen bideoa. Taberna eta sare sozialetan.

irailak 25 larunbata

- 10:30** I. Arrantza Topaketa.
19:30 Kontzertua: **TRAPALA**.

irailak 26 igandea

- 10:00** Txirrindula ibilaldia: (Zorrotza – Arztzinea – Zorrotza).
12:00 Txotxongilo tailerra. **XILIPURDI ETA GOLOKA**.
Zorrotzako Euskal Txokoak babestuta.
13:00 Indaba eta sakramentuen pintxopotea. Taberna parte hartzaileetan
17:00 Kontzertua: **KIKE Y SARA**.

irailak 29 asteazkena

- 18:00** Eskupilota erakustaldia. Frontoian
18:30 Trikitilarien kalejira
19:30 Euskal Mintza topaketa.
Zorrotzako Euskal Txokoak babestuta.

irailak 30 osteguna

- 18:30** Taekwondo erakusketa

urriak 1 ostirala

- 17:30** Kuadrillentzako playback. Frontoian
20:00 Kontzertua: **ITXARO / LUR JOTA**

urriak 2 larunbata

- 12:00** Instrumentu erreziklatuen kontzertua: **TRAKA MATRAKA**.
18:00 Kalejira eta Alardea: **IBAI ARTE**.
 Garoa Tabernatik. Frontoian.

urriak 3 igandea

- 11:30** Herri kirol parte hartzaileak eta erakustaldia
13:00 Igel txapelketa
18:30 Mariatiaki: **LOS GAVILANES**

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (abendua-urtarrila) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi azaroaren 10a baino lehen.



Ez dakit zertaz ari zaren

Ana Malagon Zaldúa.
 Elkar. 2021. 168 orrialde.



Bere asperdura eta nazka guraso dibortziatu baten etxetik bestearenera garraiatzen dituen nerabea; aita enpresaria hil ondoren beren erdipurdikeriarekin zer egin ez dakiten seme-alabak; ahizpa atxilotu dutela-eta, haren kargu egitera doan klausurako moja; gaueko txanda baten ondoren, ama zaharra sarturik daukan erresidentiara doan autobus-gidaria...

Pertsonen inguru hurbilean kokatzen ditu egileak tragedia izatera iristen ez diren drama txiki hauek, ironia erabiliz urruntze modura eta garraztasuna defentsarako babes gisa. Trikuaren arantza horien azpian, baina, giza haragia suma daiteke dardarka, gozotasun apur baten eske. Gaurko eta hemengo gizartearen ispilu baldin bada ipuin-bilduma hau, ezin esan oso eder agerrarazten gaituela.



Katez: "Argiz iluntzen"

(Katez) 2021



Doinu metaleroak honakoan. Aurreko lanekin Gaztea maketa lehiaketan edota Durangoko Azokako Ahotsenea espazioan zeresana eman ostean eta urte batzuetako isilunearen ondoren, "Argiz iluntzen"

izeneko lana aurkeztu zuen duela hilabete gutxi Leitzako seikote honek. Aurretik, aurrerapen moduan "Aurpegia biluztu" eta diskaren izenburu bera daraman abestien bideo klip ikusgarriak eskaini zizkiguten.

Proposamen interesgarria dakarte, batez ere gaur egungo musika eszenan bestelako estiloak bogan daudela ikusita. Gitarra eta base erritmiko bortitzak ahots gogor eta melodikoekin ederki nahasten dira. Sintetizadoreen erabilerak ere giro ambientalak eta bestelako testurak sortzeko bide ematen du pasarte lasaia gogor lortzeko helburuarekin. Formula ia abesti guztietan errepikatzen dela esan dezakegu, baina melodia desberdinen erabilerak monotonia hori hausteko bide eraginkor bezala erabili dute ez bairik gabe. Guztia ordu erdiko iraupenean kontzentratu.

Metala gurean oraindik bizirik dagoen seinale da Nafarroako talde gazte hau. Nahiz eta urte batzuk atzera bezala ez egon, belaunaldi berriekin etorkizuna bermatuta dagoela esan dezakegu. Hala izan dadila.

Urzelai pintxoak

Osagaiak Urdaiazpikoa, atuntzikia, arrautza, uraza, ogi zatia eta ali-olia

Lehenik eta behin, urdaiazpikoa txikitu eta arrautza xehatu. Atuntzikia papurtu ondoren, ali-olia bota, eta dena nahasten dugu.

Bukatzeko, ogi zatian jarri, eta apaintzeko, uraza zatitxoak botako dizkiogu gainetik.



Zailtasun maila: Erraza. | **Prezioa:** 1,20 euro.



ASKABIDE HERRIKO TABERNA

Frai Juan kalea, 20

Ordutegia:

Astelehenetan itxita

Asteartetik ostegunera:

12:00etatik – 15:00etara eta

18:00etatik – 22:00etara

Ostiral eta larunbatetan: 12:00eta-

tik – 15:00etara eta 18:00etatik

– 22:00etara

Igandeetan: 12:00etatik

15:00etara

ehbildu

egiteko
beste
modu bat



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza





Euskal errotak



1615ean egin ziran untziolaren lurretan kokatzen da. Eraikina 1923-1924 urteetan altxatu zan, Federico de Ugalde ta Etxebarriaren proiektua izande. Bizkaiko industria-ondarearen elementu garrantzietsuenetakotzat jotzen da, eta babes-kategoria gorena deko (BIC). Hala ere, oraingoz abandonatuta dau.

Manu Cobo

Asmo handiko proiektu honen egilea Federico de Ugalde izan zen, arkitektura industriale-
ra hurbildu zitekeena, hain zuzen ere, Ramon Grotta-
rekin “la Ceres” egiten lagundu ebanean. Gainera, uru sektoreagaz zuen lotura haratago joango zan, Toribio de Ugalderen semea baitzen (urun sektorearen etorkizunaz gogoeta egiten dan lan batzuen egilea), “Gran Molinos Vascos” ko arduradunaren anaia eta “Ugalde y Cia” ko akzioduna. Sociedad en Comandita; beraz, mota horretako eraikinen problematikara hurbiltzea haren ezagutza zuzenean oinarritu liteke.

1920ko azaroaren 27an, Federico de Ugaldek, Ernesto de Ugalde “Sociedad Grandes Molinos Vascos” Elkarteko zuzendari kudeatzailearekin batera, baimena eskatu eban urun-fabrikarako, biltegirako eta ale-biltegirako zenbait eraikin egiteko. Orubea ez eban urun-instalazioek erabat okupatzen, baizik eta etorkizuneko hantitzearako irekita izten zan.

Lehen proiektu horrek tamaina handiko eraikin bat proposatzen eban, bi gorputz independentez osatua (fabrika - biltegia eta silo-eraikina). Hala ere, Zorrotzan lanak hasteko baimena

lortu baeban ere, 1923ko urtarrilaren 10ean Federico de Ugaldek proiektuan aldaketa batzuk egiteko baimena eskatu eban, neurri txikiagoko fabrika bat aukeratuz, baina ez eban zehaztu zer arrazoik bultzatzen ebazan enpresa bere aurreikuspenak murriztera; plana irailaren 18an onartu zan behin betiko, eta obrak berehala hasi behar izan ziran, urtebete pasatxo geroxeago amaitu baitziran.

Plano barrien arabera, eraikinak 33 metroko altuera izango luke, guztira, gorengo aldean. Plano horiek erakusten dabe instalazioen aldaketa sakona, ez bakarrik tamainari dagokionez, baizik eta, batez ere, kanpoko itxurari dagokionez. Planteamendu primitiboaren klasizismo soil baina aldi berean monumentalak (XIX. mendeko azken hamarkadetakoa Europako ereduakaz hain lotuta), XX. mendearen lehen urteetatik aurrera hedatzen hasi zan erregionalismo arkitektonikoaren barruan, kontzepzio ez hain monumentalari lekua izten dautso.

Estilo hori aukeratzea oso egokia dirudi urun-fabrika batek iradokitzen dabezan landa-oroipenerako, nahiz eta Bilboko industria-kontzentrazio handieneko gune batean egon. Lengoaia formal baten bidez, Industria iraultza eguneroko pai-

saian eragiten ari zan inpaktua arindu gure da; horrela, "Euskal Errota Handien" eraikinak herri mailan buruzko erreferentziak fatxadaren kezka estetiko nagusi bihurtzen dauz.

Deskribapena

Ezkerreko hegala laburragoa da, siloak dekoz eta, beraz, ez dau solairurik. Eskumako hegala 5. solairua siloen dorreagaz lotzen da eskaileren bidez. Gainera, pabiloiari atxikitako bi markesina dagoz aurreko eta atzeko fatxadetan. Siloak, oinplanoan irteten diez, zirkuluerdi fazetatuak osatuz. Eraikinak 5 solairu eta bi dorre dekoz, eskuineko hegaleko solairu bakoitzak bi hormarte dekoz eta ezkerreko hegaleko dorrea gunee bakarra da. Hegal honetako solairu bakoitzaren azalera 600 m²-koa da.

Eraikinaren egitura porlan armatuzkoa da, eta eskumako hegalean, oinplanoa bi hormartetan banatzen dauen erdiko lau zutabeiko ilara bat ageri da. Zutabe horiekaz pilastra batzuk dagoz perimetrotako itxitura-hormetan. Horma horiek piezen bidez jarritako hormigoi armatuzkoak diez. Eraikinaren estalkia bi isurkikoa da, hasiera batean teila laukoa, gaur egun uralitazkoa, zurezko taulatuaren gainean jarria, zurezko pendoloi sinplezko zertxetan bermatuta. Kanpotik,

egurrezko tirante batzuk ikusten diez teilatu-hegaletan. Eraikinerako sarbideak erdiko patioagaz komunikatutako sei karga-tuneletatik eta portura sartzeko bost kaietatik egiten diez, aurreko eta atzeko fatxadetan eraikinari atxikitako bi markesinaren azpian babestuta.

Pabiloiaren ezaugarri nagusia da bao ugari irekitzen diezala fatxadetan, siloei dagokien hegalean izan ezik. Aurrealdeko fatxadetan sei leiho-ardatz dagoz, eta atzealdeko fatxada, itsasadarrerantz, gorputz horizontal gisa antolatzen da. Bertan, komunikazio-dorrea jartzen da, pixka bat deszentratuta, eta aurreko fatxada bako bera errepikatzen da, eraikinaren altuera osoa hartzen daben inguraketa bertikaletan jarritako.

Porturantz, fabrikak dauen luzera bereko patio bat zegoen, 12 metroko zabalerakoa. Han sartzen ziran bide zabal eta estuko bagoiak. Patio hau, Portu Autonomoak desjabetu eban kordeleriaren fabrika bera eban harlangaitzezko horma batez inguratua zegoen. Eraikinaren ezkerreko hegalean 23 silo dagoz, hamabost handiagoak, bost ilaratako hiru ilaratan lerrokatuta, eta beste zortzi tarteko espazioetan. Handiek bost metroko diametroa dabe eta 75 tn-arako edukiera.




Lápices
LIBURVENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA


ESKAINITZA
PROGRESIBOETAN
ARMAZOA +
KRISTALAK GOI-
GAMAKoak
265€
Sustapena indarrean +4,00€ eserako eta
-2,00€ zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18
ibarretaluxury
OPTICA ★

Regalos
Omega
oparidenda
Fraí Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66
www.omegadetalles.com

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Home(r)opatiaren alde

Santiago Alba Ricoren ustez (tira, berak jasotako ideia dugu hau, ez inondik ere berea), giza-bizitzan ez dago patua eralda dezakeen une erabakigarriarik, hau da, Destinuari aurre egin diezaiokeen aukerarik. "Egiaren momentua", halaberharra ebazten den unea bezalakorik ez da. Uneoro ari zaigu patua bereak inposatzen, egiaren momentua segundu bakoitza bihurtuta. Hori onartzeak zera dakar, hartzen ditugun erabakien ez-deustasuna agerian uztea. Gureak, Alba Ricorentzat, erabaki homeopatikokoak lirarteke.


Horrek ez du esan nahi, jakina, erabaki bat edo bestea hartu axolarik ez duenik. Horrelako erabaki txikiez baino, bizialdi bat alda dezakeen erabaki-une zehatzaz ari gara. Hortaz, erabaki une zehatzik ez, kontrara, milaka faktorek osatutako erabaki progresiboak hartzen ditugu, are esan ahal izate-raino erabaki ustez handi horiek ez direla berez geureak, kasualitate, baldintza, tes-tuinguru, aldarte eta abarrekoen emaitza baizik. Baina esan bezala, badaude erabaki eta itxuraldaketa txikiagoak, eskurago diru-ditenak. Horiek salbatzen gaituzte. Sendatu ez, homeopatikokoak izaki, baina iraunaraz

gaitzakete. Bakoitzak ditu bereak, definizioz pertsonalak baitira. Nik ere baditut batzuk.

Existentziaren gorabeheren menpe, erabat gatibu sentitzean, (homeopatikoki) mila aldiz salbatzea maite dut. Kontzertu bateko une (ez, une bakarra ez –dio Alba Ricok Nietzschekin- une guztiak, modu hautema-nezinean elkar gainjartzen direla) liluraga-rria, ahots ezagun eta maitagarri bat, nobela batek utzitako hustasuna, partekatutako poz isil bat, San Mames euripean. Eta badira, txikitasunaren laudatzea azkenera erama-nez, oraindik ere homeopatia ñimiñoagoak. Nobela batean borobildutako hitza, azpima-rratutako espresioa, giza-gorputzaren beroa kontzertu batean, leku egokian kokatutako orezta bat, baloi bat San Mameseko sor-pil lokaztua lastantzen, isil zaitezen eskatzen dizun ahots ezagun eta maitagarri bat. Une horiek guztiek ez dute eraginik gobernatzen gaituen patuaren ibileran, ezer gutxi egin de-zakete halabehar ahalguztidunaren aurka. Tente mantentzen gaituzte, ordea. Honeta-ra ezkerre, homeopatiaren alde, horixe. Edo, hari mataza beste behin ere nahastuz, ho-meropatiaren alde. Ez al zen bada Itaka bi-daiarako aitzaki, helmuga baino? Ez al ziren harainoko une guztiak, horietako bakoitza, helburu handia baino garrantzitsuago?

Asier Urkiza

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua



Kulturaren elementu batzuk garapenerako oztopo dira banakoen eta taldeen giza eskubideak urratzen dituztelako, batez ere emakume eta neskenak. Praktika kultural hauek "praktika tradizional kaltegarriak" bezala eza-gutzen dira eta indarraren edo presio sozialaren bitartez ezartzen dira, tradizio kulturalaren izenean edo identitate-zeinu mantenuaren berme gisa presentatuz. Nahiz eta praktika mota desberdinak diren, guztiek emakumeen kontrolerako helburua daukate eta hauen bizi ziklo osoan zehar gerta daitezke:

- Jaio aurreko aldian: sexuaren arabera abortu selektiboak.
- Haurtzaroan: bularren zapalketa, neska jaioberrien-hilketa, elikadura, osasun-arreta eta hezkuntza eskuratzeko aukera gutxiago, lan-karga handiagoa, ezarritako ezkontza

goiztiarra eta emakumeen genitalen mutilazioa, besteak beste.

- Nerabezaro eta helduaroan: bikote-barneko indarkeria, arrazoi ekonomikoek behartutako sexua, sexu-jazarpena, intzestua eta bortxaketa, antisorgailuen eskuratzeko murrizpena, emakume trafikoa, prostituzioa eta pornografia, ezkontza-hilketak...
- Zahartzaroan: alargunen hilketa, baliabide ekonomiko eta ondasunetarako eskubide desberdintasuna.

Indarkeria mota desberdinak, noren kontra eman daitezkeen, bere limiteak... gizarte digo ikusezin baina onartu batetik arauturik dago. Horrela, patriarkatua ez da soilik modu ikusezinean erreproduzitzen sozializazioaren bitartez, modu kontzientean indarra eta boterearen erabilerearen bitartez ere bai.

Burtzeñako zubian estalkirik ez

Duela gutxi Bilboko Udalak Burtzeñako zubiko oinezkoentzako aldea estaltzeko proiektua Barrutiko Kontseiluan auzokideei aurkeztuko ziela esan zuen. Momentuz ez dute ezer aurkeztu. Barakaldoko udal gobernua, proposamen berari, zuzenean ezezkoa eman zion pasa den azaroan.

Eta larriena zera da: bi udaletxeetan proposamen hau aho batez onartu zela jada 2016an. Bost urte pasa dira ezer egin gabe, eta euri egunetan ia ezinezkoa da bertatik igarotzea busti gabe, nahiz eta aterkia eraman.

SALAKETA ARGAZKIA



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



Diana

Baikorra naiz. Agian esandako epean ez da bukatuko, baina nik uste egin egingo dela

—/ Naroa Peña
eta Iratze Pérez

FEVE geltokia lurperatzeko hitzarmena:

Oraingoan bai
trenbidea lurpean?



Kike

Ez, ez dute egingo.
Edo behintzat,
nik ez dut uste
ikusiko dudanik.



Igor

Uste dut baietz,
egin egingo dela,
kontua da noiz...
Ez dut uste
nik lurperatuta
ikusiko dudanik.



Elena

Ez dakit, baina
jendea nahiko ezkor
dago gaiarekin.
Nik behintzat
ez dut sinestuko
ikusiri arte.



Rebeca

Ez dut uste.
Gainera, azken boladan
gai hau ez dago
ezta auzoko
taldeen agendan
ere presente.

**ROCKET
TAVERN**



Plater konbinatuak,
hanbursesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com

1^o urte



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

Santer
& BAR

Afariak ostiral
eta larunbatetan
Etxeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA



EUSKARAZ gehiago gara

MATRIKULA ZAITEZ
BILBOKO EUSKALTEGIETAN

bilbaeuskaraz.bilbao.eus

B
Bilbao



iKasi
Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



EUSKARAREN INSTITUTUA

Pinadua etxaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com




EUSKARAREN INSTITUTUA

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.leszorrotzabhi.hezkuntza.net



EDICIÓN XXIII EDIZIOA
14 - 24 / 10 / 2021

BILBOKO ANTZERKI ETA DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIA
FESTIVAL DE TEATRO Y DANZA CONTEMPORÁNEA DE BILBAO
BILBAO FESTIVAL OF CONTEMPORARY THEATRE AND DANCE

www.badbilbao.eus



Bilbao